

LEHIAKETAK

Poesia.

Arabako Diputazioko Kultura eta Euskara Sailak Ernestina de Champourcin IX. Poesia Lehiaketa antolatu du, euskarazko zein gaztelaniazko adarretan. Nahi duen pertsona orok har dezake parte, nahi duen edozein gai landuz. Adar bakoitzeko irabazleak 250.000 pezeta poltsikoratuko ditu (10.000 libera inguru). Lanak aurkezteko epea urriaren 1ean amaituko da.

Kartelak.

Arabako San Prudentzio jaia iragarriko dituen kartela aukeratzeko lehiaketa antolatu du Arabako Diputazioak. Nahi duenak har dezake parte. Irabazlearentzako saria 175.000 pezetakoa izango da. Lanak aurkezteko epea otsailaren 28an amaituko da.

Literatura.

Lasarte-Oriako Udalak XII. Literatur Lehiaketarako deialdia zabaldu du. 1982. urtean edo lehenago jaiotako euskarazko zein gaztelaniazko idazleek har dezakete parte ipuin eta poesia arloetan. Aurkeztutako lanek argitara gabeak edo orijinalak izan beharko dute. Lanak aurkezteko epea apirilaren 30ean amaituko da. Euskarazko zein gaztelaniazko adarretan, 110.000 pezetako bi sari nagusi eta 40.000 pezetako bi akzesit emango dira. Informazio gehiagorako jo ezazu Lasarte-Oriako Manuel Lekuona kultur etxera.

ERAKUSKETAK

'Distantzia kritikoa': XX. mendeko errazkiak.

AEK Totx Eguna Astigarragan

AEK erakundeak II. Sagardotegi Eguna antolatu du larunbaterako Astigarragan. Iaz bezala, Astigarrako eta Hernanialdeko 37 sagardotegi hartu ditu AEK-k, eta bertan bilduko dira bazkaltzera Euskal Herriko hainbat tokitatik etorritako ehundaka lagunak. «AEK Txotx Egunaren helburu nagusia euskaraz ikasten ari direnak sagardotegietara hurbilaztea da, ikasleel euskal giroan murgiltzeko eta euskara erabiltzeko aukera emanez», azaldu du AEK-k. Hala ere, bertan parte hartzeko ez da ikaslea izan behar, baizik eta edozeinek hurbilen duen euskaltegian eman dezake izena, Euskal Herri osotik aterako diren autobusetako batean Astigarragara joateko. Txartelak erosteko epea herenegun amaitu zen, baina norbaitek izena eman nahi badu, oraindik badu aukera 943-471935 telefonora deituz.

Autobusak 14:00ak aldera iritsiko dira Astigarragara. Denak batu ondoren, bazkaltzera joango dira 14:30etan. Bapo jan eta edan ondoren, denak herrira abiatuko dira, bertan ekitaldi ugari izango baitira 18:00etatik aurrera: eskulangintza erakusketa, trikitixa, Txatunga Bembere perkusio taldea, Eitzakit trikitixa taldea, Anje Duhalde kantaria, Ake-larre plaza taldea... Txosnak ez dira faltako, eta eguraldi txarra balitz ere babesteko oihal-etxola bat jarriko da.

hartuko dute liburuaren bi egi-

ko urtegiaren proiektuaren

han eta hemen



ZINE ETA ANTZERKI AGENDA

Antzerkia

- ▶ **Tartufo** (Fernando Fernan Gomez): gaur, Gasteizko Principal antzokian, 20:30etan.
- ▶ **Barcelona, Paris, Caracas** (Chicos Mambo Show): gaur, Hernaniko Biteri kultur etxean, 20:00etan.
- ▶ **Anthologia** (Els Comediants): gaur eta bihar, Barakaiko antzokian, 20:30etan.
- ▶ **Malvaloca, gran salón de baile**: gaur eta bihar, Zornotzako kultur aretoan, 21:00etan.
- ▶ **Hamleta o la pérdida de identidad** (¿Quién es Bob?): gaur eta bihar, Donostiako Lugaritz kultur etxean, 20:30etan.
- ▶ **Barcelona, Paris, Caracas** (Chicos Mambo Show): ostiralean, Ermuako Zinemaren, 22:15etan.
- ▶ **Jaioko dira berriak** (Ereintza): ostiralean, Bilboko Kafe Antzokian, 22:00etan.
- ▶ **La coraje** (Iñaki Salvador eta Ana Pimenta): ostiralean, Hernaniko Biteri kultur etxean, 28:00etan.
- ▶ **Madre caballo** (Centro Andaluz de Teatro): larunbatean eta igandean, Donostiako Victoria Eugenia antzokian, 20:00etan.
- ▶ **Las aventuras de Simbad** (La Tropa): igandean, Gasteizko Principal antzokian, 18:00etan.
- ▶ **La Garbosa** (Markeñe): asteartean eta asteazkenean, Elorrioko Arriola aretoan, 10:30etan eta 15:00etan.

Zine-klubak

- ▶ **Cien maneras de hacer pollo al chillindrón** (Kepa Sojo) laburmetraia eta **La otra América** (Goran Paskaljevic): gaur, Beasaingo Usurbe antzokian, 21:00etan.
- ▶ **Crash** (David Cronenberg): gaur, Tolosako Leidor zinemaren, 21:30etan.
- ▶ **Sunchaser** (Michael Cimino): gaur, Areetako Gran Cinemaren, 19:00etan.
- ▶ **Box of moonlight** (Tom Dicillo): gaur, Oñatiko Santa Ana aretoan, 20:00etan.
- ▶ **Chevrolet** (Javier Margua): gaur, Elorrioko Arriola aretoan, 20:15etan.
- ▶ **Ponette** (Jacques Douillon): gaur, Ermuako Zinemaren, 22:00etan.
- ▶ **Le buge estralla** (Ricardo Franco): gaur, Errenteriako On Bide zine-